

Antzerkia

Kulturaren Euskal Planaren Antzerkiaren taldearen
bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

AMIA ANALISIA	3
INDARRAK	3
AUKERAK	4
AHULEZIAK	6
MEHATXUAK	9
JARDUTEKO ILDOAK	11
LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK	14

AMIA ANALISIA

INDARRAK

Trebakuntza eta ikerkuntza

- ◆ Trebakuntzaren benetako eskaria, une honetan dagoen eskaintzan oinarritua (EAEko ikastetxe pribatuak eta beste erkidegoetako goi-mailako antzerti-eskolak).

Produkzioa:

- ◆ Arte-jarduera izateaz gain, enplegua sortzen duen jarduera ekonomikoa ere bada.
- ◆ Sare profesional handia dago –konpainia eta produkzio-etxe handiak– arte eszenikoen eremu guztietan: esperientziaduna, egituratua, hazten ari dena eta sortzailea. Horrela, baliozko solaskideak eduki daitezke, baita barne- eta kanpo-merkatu zabala ere (zabala kantitatean eta zabala kalitatean). Urtero sortzen dira arte-maila handiko proposamenak.
- ◆ Arte eszenikoen sektoreak aurrera egiteko benetako aukerak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak ausartago esku hartu behar du, esaterako, lege zehatzak aldarrikatuz.
- ◆ Sarearen esparruan, sektorea garatzeko, aldundiek, udalek eta Eusko Jaurlaritzak duten konpromisoa eta egiten dituzten ekarpen ekonomikoak.
- ◆ Antzerti-produkzioa diruz laguntzeko dauden ildoak, ibilbide luzea dute eta eragin handia dute sektorean.

Banaketa eta hedapena:

- ◆ Euskal Antzokien SAREA: erakunde arteko lana egiteko aukera ematen du eta programazio iraunkorra eta kalitatekoa izaten laguntzen du, dauden giza eta ekonomia-baliabideak hobetuz, pertsona bakar batzuen borondatearen mende egon gabe.
- ◆ Sarearen barnean Arte Batzordea egotea. Programatzaileen ordezkariak osatzen dute, eta laguntza handia da programazio-lanetarako, batez ere, antzerti-eskaintzaren segimendu estua egiteko aukera gutxiago dituztenentzat.
- ◆ Hiru erakustoki garrantzitsu euskal produkzioarentzat (Leioako eta Donostiako Antzerti Feriak, eta Tarregako "Euskal Teatroa").
- ◆ *ARTEZ* aldizkaria; tresna garrantzitsua da euskal antzertia hedatzeko.

AUKERAK**Trebakuntza eta ikerkuntza:**

- ◆ Eremu honetan dagoen eskaintza faltaren arazoari aurre egiteko erakunde batzuek adierazi duten konpromisoa edo interesa. Ikasketen lehenengo aldia (Erdi-mailakoak edo Lanbide Heziketakoak) hiru lurralde historikoetan eta goi-mailakoak Goi-mailako Antzerti Eskola hipotetikoan egiteko aukera.
- ◆ Hizkuntza normalizatzeko prozesua: EAEtik soilik erantzun dakioke gure aktore, zuzendari... euskaldunen trebakuntza-beharrari.
- ◆ EHU antzerti-programazio bat eskaintzen ari da unibertsitateko gazteei; gazteak atzematen laguntzen du, eta sustatu egin beharko litzateke.

Banaketa eta hedapena:

- ◆ Ikuskizunak hiri handietan –Madrilen eta Bartzelonan adibidez– erakusteko babesak.

Produkzioa:

- ◆ EITBk antzerti-konpainiekiko koprodukzio-plataforma gisa jokatu behar du. Antzezte-ikuskitzenak produzitzea EITBrentzat.
- ◆ Hirietako antzokiek eta jaialdiek eragin behar dute formatu handiko ikuskizunen produkzioan eta koprodukzioan, ikuskizun horiek ezin helduzkoak baitira konpainia pribatuentzat.

Banaketa eta emanaldiak:

- ◆ Bira jarraituak lortu behar ditu SAREAK hura osatzen duten konpainientzat.
- ◆ Marka-irudi bat sortzeko eta esportatzeko emanaldi-plataformak izateko beharra. Euskadin bertako produktuen emanaldiek antolatuta egon beharko lukete, euskal produkzioak kanpoko merkatuetara eraman baino lehen egoki lantzeko moduan.

Kultur kontsumoa:

- ◆ Euskal gizartearen kultur kontsumoa handia da estatuko beste erkidego gehienekin alderatuz gero.
- ◆ Gero eta garrantzi handiagoa du "Kultur Industriak"- egungo "Aisiaren Kulturaren", eta sektorean profesionalak behar izatea eragiten du horrek.

Kultur politika:

- ◆ Antzertiren esperientziak, nahiz eta akatsak egin ziren, koherentzia zuten elementu batzuk zituen.
- ◆ Arte eszenikoetako esparru guztiak egongo diren lan-batzordeak sortzeko beharra: programatzaileak, produktoreak, banatzaileak. Merkatua erregularizatzeko ideiak ematea da helburua.
- ◆ Borondate politikoa eta aurrekontu publikoa: Gobernu propioa, kudeatzeko autonomia eta aurrekontu handi samarra dituen.

- ◆ Sektoreko erakundeak sendotzea; baliteke horrek balio izatea epe motzeko, ertaineko eta luzeko jardura-planak definitzeko eta adosteko.
- ◆ Goi-mailako Musika Kontserbatorioa sortzeko prozesua, ondoren Goi-mailako Antzerti Eskola sortzeko eredia izan daitekeen heinean.
- ◆ "Erakarpen" faktorea; ikus-entzunezko hurrengo legea edo plana egitea ekar lezake, bide berriak irekitzeko kultur industriarentzako laguntzen tratamenduan (finantzatzeko bide berriak...).
- ◆ Kudeaketa publikoko antzokiekin lotuta dauden bertako konpainiak. Aztertu ahal izango litzateke dagoeneko Europako hainbat herrialdetan dagoen eredia. Bateratutako Konpainientzako diru-laguntzak.
- ◆ Edozein erabaki hartzeko, aintzat hartu behar dira lurralde historiko bakoitzaren berezitasunak.

AHULEZIAK

Prestakuntza eta ikerkuntza:

- ◆ Antzertiaren arloan eta, oro har, arte eszenikoetan, ez dago berriazko hasierako trebakuntzaren nahiz trebakuntza jarraituaren eskaintza egokirik profesionalentzat. Horrek eragina du sortzaile eta antzezleengan eta ikuskizunetako profesionalengan (teknikoak, jantzien diseinatzaileak, argigileak, eszenografoak).
- ◆ Ikertzeko gunerik ez egotea arte eszenikoetan eta dantzan, ezta zirkuan, kale-antzerkian eta abarretan ere

Sorkuntza:

- ◆ Konpainia profesionalak ugaritzeak eragiten du ekipo tekniko gehiegi egotea eta administrazio-lana gehitzea, eta kontzentratu egin behar litzateke administrazio-lana.
- ◆ Telesailetan lan egiteko aktoreak eskatzeak nahastu egiten ditu ustezko profesionalak, antzerki-emaldiak egiteko aski arte-prestakuntza ez dutenak.
- ◆ Produkzio gehiegi eta merkatua erregularizatzeko beharra.

Produkzioa:

- ◆ Baliabide-zentroak sortzea hirietan produkzioak egiteko.

Banaketa eta emanaldiak

- ◆ Ferietan, jaialdietan eta kontzentrazioetan euskal produkzioak egon daitezen – programatzaileak joaten dira horietara ikuskizunak kontratatzeke– jarduera hau laguntzen duten beharrezko kondizioak sortu behar dira. Izan ere, bestela oso zaila da euskal produkzioektokia izatea beste autonomia-erkidego batzuetan.
- ◆ Estreinalditik aurreneko emanaldira arte hilabete batzuk igarotzen dira (4 baino gehiago). Eta horrek kalte egiten die ikuskizunari eta konpainiari, hala arte-mailan nola ekonomia-mailan.
- ◆ Antzoki gehienek asteburuan soilik programatzen dute antzertia, eta zaildu egiten du horrek birak koordinatzea.
- ◆ Bizkaiko konpainia gutxi daude Gipuzkoako programazioetan.
- ◆ Konpainiak beste erkidego batzuetara joatea, batez ere, hango zirkuituetan sartzearen baitan dago. Feriak beharrezko erakustokiak dira sartu ahal izateko, baina ferietan arrakasta duten ikuskizunak ez dira zirkuitu askotan sartzen, ofizialki itxita daudelako beste erkidego batzuetako produkzioentzat.
- ◆ Euskal produkzio gehienak formatu ertaina dute, eta merkataritza-bokazio argia dute. Ez datoz bat zirkuitu alternatiboekin, eta Sareko Antzokietako nahiz zirkuituetako

ateak ixten dizkiete, izen handiko aktorerik ez dutelako, eta produkzioak noraezean uzten dituzte.

Kultur kontsumoa

- ◆ Belaunaldien arteko hutsunea gazteen antzerki-kontsumoan.
- ◆ Konpainien ibilbidea gutxi hartzen da kontuan estreinaldian ikusi baino lehen programatzeko konfiantza-tartea ezartzeko garaian, eta antzerti-konpainiek mendetasun handia dute berehalako ustiapen-emaitzekin (hazkuntza-krisia).

Kultur politika:

- ◆ Ez dago gizarte-, politika- nahiz aurrekontu-interes nabarmenik. EAEko konplexutasun instituzionala dela eta, askotan, gainjarri egiten dira jarduera instituzionalak, eta/edo koordinaziorik ezak arazoak eragiten ditu.
- ◆ Hutsune handiak daude plangintza estrategikoan eta helburuak definitzean: bat-batekotasun gehiegi ekimenak sortzean eta gauzatzean; lotura, koordinazio eta sintonia falta produkzioaren eta haren ondorengo hedapenaren artean; jarduerak definitzeko abiapuntua kopiak izaten dira, aurrez egiaztatutako diagnostikorik egin gabe.
- ◆ Sektore pribatuak mendetasun handia du erakundeen laguntzekiko, eta ez du nahikoa 'indar'.
- ◆ Oro har, gehientsuenak ados daude esatean laguntzeko politika publikoak behar direla balio kulturalaren katean dauden kate-maila guztietan. Baina beharrezkoa da jarduteko proposamen zehatzak eremu bakoitzean eztabaidatzea, ez pentsatzeko beti puntu berean gaudela. Edozein motatako ekintzak diruz lagundu baino lehen kanpotik ebaluatzeko beharra.
- ◆ Antzertiaren Dokumentazio Zentroa sortzea.

MEHATXUAK

Trebakuntza eta ikerkuntza:

- ◆ Hutsuneak profesionalizazioan: hutsuneak daude trebakuntzan, eta halabeharrez bere kabuz ikasten duen pertsona gehiegi dago. Ondorioz, profesionalizazio-maila baxua da, eta horrek sektorearen hazkuntza muga dezake eta kanpoko merkatuetan hedatzeko aukerak eragotz ditzake.
- ◆ Arinegi edo zorrotasun gutxirekin baloratzen da egungo Tailerrek EAEko antzertiari egiten dioten ekarpena. Horrek gutxietsi egiten ditu haien gaitasunak eta duten paper dinamizatzailea eta eragilea, eta aukerak kentzen dizkie etorkizuneko hezkuntza-organigraman.
- ◆ Araututako trebakuntza bat sortzeak ekonomia-kostu handia dakar, arte-irakaspenen berezko ezaugarriek sortutakoa.

Produkzioa:

- ◆ Produkzioan ahulezia handia antzematen zaie enpresa-egitureei.

Banaketa eta emanaldiak:

- ◆ Antzoki publiko batzuen programazio-irizpideak pribatuen irizpideen berdinak dira. Hedapenerako tokiek ez dute identifikatzeko moduko ezaugarririk. Komenigarria litzateke lekuak gehiago espezializatzea, erakunde publikoen artean zentzurik gabeko lehia saihesteko.
- ◆ Ezinezkoa da zirkuitu zehatz batzuetan eta Sareko Antzokietan sartzea, ikuskizunetan ospea duten aktoreak ez izateagatik.
- ◆ Lehia desleiala dago beren produkzioak dituzten Sareko Antzokien eta Zirkuitu Autonomiko zehatz batzuen artean. Titulartasun Publikoko edo mistoko produkzio-unitateak mehatxu handi bat izan daitezke egungo konpainiak mantentzeko, epe motzean sustatzen badira, esaterako, trebakuntza-arazoa konpondu baino lehen.

Badaude beste erkidego batzuetan erreferentzia txar gisa balio dezaketen esperientzia batzuk.

- ◆ Kanpoko merkatua, produkzioa sendotu dezakeena, oso konplexua da.

Kultur kontsumoa:

- ◆ Aisiarako ekintzen eskaintza handia herritarrentzat.
- ◆ Beste leku batzuetan sortzaileek eta antzezleek etorkizun profesional hobea izateak basamortu kultural bihurtzen du EAE.
- ◆ Hedabide publikoek ez diote behar adinako arretarik eskaintzen, eta horrek ez du laguntzen hedabideen inpaktua sortzen publikoa lortzeko.
- ◆ Izenak agerian uzten duen bezala, arte-batzordeak ez dituzte programatzaileek osatu behar, artistek baizik.
- ◆ Tentaldi pertsonalistak. Kultur plangintzaren prozesua gauzatzeak arrisku bat du: erabat zeregin altruistak direnetan eta/edo kolektiboetan nahastea aukeren bilaketa (pribatua) eta *sine cura* bilaketa (banakoena).

JARDUTEKO ILDOAK

- Politika, koordinazioa eta ekimen publikoak.

- Komenigarria da egungo legearen "egiaztatze-ikerketa" hastea, Lege Esparru baten bidez Arte Eszenikoen erregulazioa bukatzeko EAEko Arte eszenikoentzat.

- Diru-laguntza eta bestelako laguntza publikoekin lotzea produktutako ikuskizunak eta aretoetako emanaldi-politikak.

- Arte eszenikoekin zerikusia duen guztia dinamizatu, bideratu eta koordinatzeko erakunde bat sortzea, eta han zentralizatzea, besteak beste, produkziarako laguntzak, antzezte-tokien koordinazioa, ikerketa, irakaskuntza eta publiko berriak sortzeko planak. Eragina izango du, era berean, antzerkigintza berriak sortzeko eta antzerki-eragile berriak (zuzendariak, aktoreak, musikariak, eszenografoak, teknikariak eta abar) sartzeko. Erakunde hori Euskal Arte Eszenikoen Institutua izango litzateke. Beharrezkoa den malgutasunarekin eta behar adinako profil profesionalarekin funtzionatu beharko luke, aurretik aipatutako eremuetan balioztatutako helburuak erdiesteko. Epe motzera, ertainera eta luzera begira lan egingo du, sinergiak bilatuz eta esku-hartze publikoaren eragile gisa jardunez arte eszenikoetan.

- Antzezte-sorkuntzako eta antzezte-produkzioko esku-hartze publikoa hareagotzea, diru-laguntzen politika baten bidez; politika horrek aukera eman behar du dauden egitasmoak irmotasun handiagoarekin garatzeko. Lehentasuna izango lukete konpainien bateratzeak edo antzerti-nukleoek. Urte batzuetarako "programa-kontratuen" bidez (berriztagarriak), egoitzen bidez... eratu daitezke. Ekimenak jasotzen eta haiei ekiten uzten duten produkzio- edo koprodukzio-plataformak sortuko lirateke. Ekimen horiek dituzten arte-, teknika- edo aurrekontu-ezaugarriak direla-eta, ez dira dauden produkzio-unitateentzako modukoak.

1. Baliabideak sustatzea (trebakuntza, enplegua, lankidetzeta eta abar)

- Euskadiko Antzokien Sarea indartzea. Euskal Arte Eszenikoen Institutua egiteko asmoa izanik, beharrezkoa da Sareari pertsonalitate juridiko propioa eta teknika-, giza eta ekonomia- baliabideak ematea, ezinbestekoak baitira sektorearen politika publikoa eremu guztietan indartzeko.
 - Goi-mailako Arte Eszenikoen Eskola sortzea Antzertian eta Dantzan araututako ikasketak irakasteko, legeek uzten duten maila handienarekin, osotasunean eta antzezpen- eta dantza-diziplina eta -genero guztiak ikasteko aukera emanda. Hori guztia zuzendaritzako, dramaturgiako, eszenografiako eta ikuskizunen teknologiako goi-mailako ikasketekin osatuko litzateke.
3. **Enpresa-sarea antolatzea (informazioa, arauak, asoziazionismoa eta behin-behineko erakunde eragileak).**
- Arte Eszenikoetako Logistikarako Arreta Zentroa sortzea, han baldintza onetan gorde ahal izateko enpresa bakoitzaren dekoratuak eta argi- eta soinu-ekipoak. Han egongo dira teknikariak eta kudeaketa-bulegoa. Horrela, kalitatea hobetu da eta lana arrazionalizatuko da, eta, era berean, entseatzeko edo ikuskizunak eraikitzeke tokiak ipiniko dira.
 - Antzerkia programatzen duten antzoki pribatuei edo independenteei laguntzea. Sektorean gizarte-ekimena eta pribatua indartzeko modua izango litzateke, eta administrazioek bidegabeki edukitzea saihestuko litzateke.
 - Ikuskizunen emanaldien monopolioa.
4. Produktu-irizpideak (zer egin nahi da eta zer egin daiteke) eta euskararekin edo kulturarekin duten balizko lotura.
5. Balio-katearen eta kudeaketaren alderdiak

5.1. Teknologia, I+G+B

5.2. Sorkuntza.

5.3. Produkzioa. .

- Dokumentazio-zentro bat eta Antzerti Artxibo bat abian jartzea, antzertian produzitzen den guztia biltzeko.

5.4. Banaketa eta emanaldiak

- Madrilen eta/edo Bartzelonan antzeztoki duin bat izatea, –beste autonomia-erkidego batzuekin partekatua izan daiteke–, handik iritsi ahal izateko emanaldi-merkatu jarraitu batera, euskal kultura kanpoan sustatzeko politikaren baitan.

5.5. Hedapena

- Antzerti Amateurra dinamizatzeko eta bizitzeko plana garatzea –Antzerti Profesionaletik bereizita– parte-hartzea eta publikoaren gehikuntasustatzeko.

5.6. Kudeaketa-eredua hobetzea (ikastaroak, topaketak, aholkularitza, mintegiak eta abar)

6. Kultur kontsumoa dinamizatzea eta nazioartekotzea

- Eragin handiko komunikazio- eta publizitate-politikak egitea, EAEn hedatzen diren komunikabide publikoen eta pribatuen babesa izango dutenak.
- Dauden Jaialdi eta Ferien ikerketa orokorra egitea. Lehentasunak ipini eta erreferenteak definituko lirateke, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jasotzeko irizpideak jarri eta jaialdi-mota desberdinak zehaztuko lirateke, haiek bereizteko.

- EAEko arte-produktuak sustatzen lagunduko duten sustatzea, merkatu berriak irekitzeko eta konkistatzeko.
- Publiko berriak atzemateko eta dagoena lehialtzeko estrategia komunak garatzeko beharra.
- Euskal kultura biziaren nazioarteko hedapena indartzea, arte eszenikoak barne hartuta, EJren emanaldi-plataformen bidez. Honako hauek aintzat hartuko dira: ferietan eta jaialdietan egotea, programatzaileak gonbidatzea eta abar. Euskal kulturaren kanpoko sustapena egonkortuko duen erakunde publiko bat sortzea komeni ote den aztertuko da.

LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK

1. Goi-mailako Arte Eszenikoen Eskola sortzea Antzertian eta Dantzan araututako ikasketak irakasteko, legeek uzten duten maila handienarekin, osotasunean eta antzezpen- eta dantza-diziplina eta -genero guztiak ikasteko aukera emanda. Hori guztia zuzendaritzako, dramaturgiako, eszenografiako eta ikuskizunen teknologiatik goi-mailako ikasketekin osatuko litzateke.
2. Arte eszenikoekin zerikusia duen guztia dinamizatu, bideratu eta koordinatzeko erakunde bat sortzea, eta han zentralizatzea, besteak beste, produkzioarako laguntzak, antzezte-tokien koordinazioa, ikerketa, irakaskuntza eta publiko berriak sortzeko planak Eragina izango du, era berean, antzerkigintza berriak sortzeko eta antzerki-eragile berriak (zuzendariak, aktoreak, musikariak, eszenografoak, teknikariak eta abar) sartzeko.. Erakunde hori Euskal Arte Eszenikoen Institutua izango litzateke. Beharrezkoa den malgutasunarekin eta behar adinako profil profesionalarekin funtzionatu beharko luke, aurretik aipatutako eremuetan balioztatutako helburuak erdiesteko. Epe motzera, ertainera eta luzera begira lan egingo du, sinergiak bilatuz eta esku-hartze publikoaren eragile gisa jardunez arte eszenikoetan.
3. Publiko berriak atzemateko eta dagoena lehialtzeko estrategia komunak garatzeko beharra.

4. Antzezte-sorkuntzako eta antzezte-produkzioko esku-hartze publikoa hareagotzea, diru-laguntzen politika baten bidez; politika horrek aukera eman behar du dauden egitasmoak irmotasun handiagoarekin garatzeko. Lehentasuna izango lukete konpainien bateratzeek edo antzerti-nukleoek. Urte batzuetarako "programa-kontratuen" bidez (berriztagarriak), egoitzen bidez... eratu daitezke. Ekimenak jasotzen eta haiei ekiten uzten duten produkzio- edo koprodukzio-plataformak sortuko lirateke. Ekimen horiek dituzten arte-, teknika- edo aurrekontu-ezaugarriak direla-eta, ez dira dauden produkzio-unitateentzako modukoak.
5. Euskadiko Antzokien Sarea indartzea. Euskal Arte Eszenikoen Institutua egiteko asmoa izanik, beharrezkoa da Sareari pertsonalitate juridiko propioa eta teknika-, giza eta ekonomia- baliabideak ematea, ezinbestekoak baitira sektorearen politika publikoa eremu guztietan indartzeko.
6. Euskal kultura biziaren nazioarteko hedapena indartzea, arte eszenikoak barne hartuta, EJRen emanaldi-plataformen bidez. Honako hauek aintzat hartuko dira: ferietan eta jaialdietan egotea, programatzaileak gonbidatzea eta abar. Euskal kulturaren kanpoko sustapena egonkortuko duen erakunde publiko bat sortzea komeni ote den aztertuko da.